

## BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

### 6016

*EBAZPENA, 2021eko azaroaren 17koa, Gizarte Zerbitzuen zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2014ko urriaren 29ko Aginduan aurreikusitako dirulaguntzetarako 2021eko ekitaldian izango den kreditua handitzen dela. Agindu horren bitartez, honako prozedura hau ezarri zen: Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei dirulaguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura.*

2014ko urriaren 29ko Aginduak, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarenak, prozedura bat ezartzen du abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei dirulaguntzak emateko eta ordaintzeko (2014ko azaroaren 19ko EHAA, 221. zk.).

Haren xedapen gehigarrian, finantzaketa eta aurrekontu-egozpenari buruzkoan, honako hau ezartzen da: «Publikotasun-printzipioa betetzeko, Gizarte Zerbitzuen zuzendariak aurrekontu-ekitaldi bakoitzaren hasieran emango du jakitera, ebazpen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako esleitu den zuzkidura».

Halaber, honako hau ere zehazten da: «Aurrekontu-ekitaldi baten barruan emango diren laguntzen zenbateko osoak ez du gaindituko aipatutako zuzkidura edo hura eguneratzearen ondoriozkoa, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen aurrekontu-araubidearen arabera. Gizarte Zerbitzuen zuzendariaren ebazpen bidez emango da horren berri, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta».

Gizarte Zerbitzuen zuzendariaren 2021eko martxoaren 30eko Ebazpenaren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2014ko urriaren 29ko Aginduan aurreikusitako laguntzen zuzkidura argitaratu zen (2021eko apirilaren 9ko EHAA, 69. zk.).

Gaur egun, ekitaldi honetarako bideratutako kredituaren zati handi bat agortuta dagoenez, zehazki, % 91,15, kontuan hartuta aurkezten diren eskaeren kopurua eta onuradun izan daitezkeen beharizan atzeraezinak, 2021erako bideratutako aurrekontu-zuzkidura handitu behar da.

Beraz, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuan xedatutakoaren arabera, eta 2014ko urriaren 29ko Aginduaren xedapen gehigarri horrek ematen duen gaikuntza eta erabilgarri dagoen aurrekontua kontuan hartuta, aurrekontu-baliabideak 450.000 euro handitu behar dira.

Hori dela-eta, honako hau

**EBAZTEN DUT:**

Artikulu bakarra.— Publikotasun-printzipioa betetze aldera, 2014ko urriaren 29ko Aginduan aurreikusitako laguntzen finantziazioa handitu egin behar da 2021eko ekitaldirako, 450.000 eurotan.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Gizarte Politiketako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 112. artikuluan ezarritakoaren arabera.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak ebazpen honek.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 17a.

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria,  
MARÍA ANTONIA OLABARRIETA IBARRONDO.